



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/19

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe deposituak eta dohaintzak Foru Liburutegira bideratzeko Arauz Besteko Proposamena**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako Batzordeak, batzarretako talde guztien aho bateko erabagiz onetsi dau gaur goizean Foru Liburutegiari lanak deposituan emotea eta dohaintzak egitea sustatzeko Arauz Besteko Proposamena. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroalearen ekimenez aurkeztutako proposamenak eskaria egiten deutso Foru Aldundiari, herritarrek, erakundeek, enpresek eta administrazioek, Foru Liburutegiari liburuak, liburuxkak, aldizkako argitalpenak eta inprimatutako bestelako elementu interesgarriak dohaintzan emotea sustatuko daben jarduketak aztertu eta martxan jarri daizan.

Bere proposamena justifiketako orduan, Aldecoak azkenengo urte bietan izandako dohaintza bibliografiko kopuru txikia azpimarratu dau, eta Foru Liburutegiak, bestela “deuseztatuta edo modu txarrean sartuta” geratuko litzatekezan bildumak jasoteko daukan prestutasuna jakinarazotea eskatu dau. Talde guztiak bat etorri dira erakundearen funtsak oso kostu txikiagaz hobetzen lagunduko dauen Arauz Besteko Proposamena interesgarria dala esatean, baina Josu Montalbán bozeroale sozialistak adierazo dauenez, jarri beharreko irazkia jarri beharko da, “gure artxiboak eta liburutegia ez daitezkan danetik batzen daben biltegi hutsak bilakatu”

### **LOREA BILBAO FORU DIPUTATUAREN AGERRALDIA**

Aitatutako Arauz Besteko Proposamena onesteaz aparte, gaur goizean egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako Batzordeak, Lorea Bilbao Saileko Foru Diputatuaren agerraldia be jaso dau. Talde Mistoak eta EH Bilduk museoakaz erlazionautako egitasmo biren inguruan egin dituen eskariei erantzun deutsez Diputatuak.

Lehenengoa, Guggenheim Bilbao Museoaren handitze posiblearen inguruan Aldundiak gaur egun daukan erespidearen, eta handitze posible horrek posiblea be badan Arte Ederretako museoaren handitzeagaz daukan bateragarritasunaren gainekoa izan da. Gai horren inguruan, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak museo biak bateragarriak izan daitezkeza eta modu koordinatuan garatzeko aukerea daukiela esan dau, “Bilbo eta bertako museoak osotasun moduan ulertuta”.

Lorea Bilbaok adierazo dauenez, momentuz ez dago barrikuntza garrantzitsurik aitatutako handitze posible bien inguruan, eta “erreferentziazko museo bi daukaguzala” eta “horreen gaineko gogoeta sakona eta konpartitua egin behar dogula” azpimarratu dau “Kulturarako aukera gunea izaten jarraitu daien eta, aldi berean lurraldearen garapen orekatua bultzatu daien”. Gainerako taldeak bat etorri dira gogoetarako beharra eta handitzeko ekimenei ekin aurretik txosten tekniko eta ekonomiko fidagarriak egin beharra azpimarratzean, eta gai horren inguruan emon daiteken edozein pausuren inguruko informazioa eurei jakinarazoteko eskatu deutsie Kultura Foru Diputatuari.

Bigarren agerraldia, etorkizunerako eregi gura dan Industriaren eta Teknikaren Museoaren gainekoa izan da. Museoak aldeko eretxi nabarmena jaso eban joan dan zemendian egin zan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako Batzordeak onetsitako Arauz Besteko Proposamenaren bitartez. EH Bildu taldeak horren gaineko itauna egin deutso Foru Diputatu andreari.

Onetsi zan Arauz Besteko Proposamenak eskaria egiten eban, legealdi hau bukatu aurretik Industriaren eta Teknikaren Museo bat sortzeko eta martxan jarteko estrategia bat aurkezteko eta definiduteko. Museoa egiteko aitatu zan lekua Zorrotzako kaian dagon Euskal Errota Handien eraikina izan zan. EH Bildu taldeak “egitasmoa errealidade bihurtzeko orain arte emon diran pausuen eta etorkizunari begira aurrera kontuan izan beharreko epeen eta gauzatutako ekimenen gaineko” informazioa eskatu dau.

Guggenheim eta Arte Ederren museoen handitze posiblearen kasuan egin dauen moduan, Lorea Bilbao ez dau datu zehatzik emon, baina proiektu “garrantzitsua eta beharrezkoa” dala azpimarratu dau. “Alkarrizketak izan doguz Eusko Jaurlaritzagaz eta industriako ondarearen arloan behar egiten daben hainbat enpresagaz eta erakundegaz, baina oraindino ez daukagu erantzun zehatzik, definizino estrategiko etapan gagozalako. Urte honen bukaerarako etapa hori amaituta egongo dala aurreikusten dogu”.

Agerraldia eskatu dauen taldearen aldetik, museoaren gaineko proiektua legealdi hau bukatu aurretik egon beharko litzatekela bideratuta azpimarratu dau María Jesús Padronesek, eta museoarako aurreikusi zan eraikinaren egoera txarra ikusita preminazko erabagiak hartu beharko litzatekezala nabarmendu dau. Talde Mistoko bozeroaleak be alderdi hori azpimarratu dau. Talde popularra ez da bat etorri kokaleku horregaz, eta Ezkerraldean beste lekuren bat topetearen aldeko apustua egin dau, museo guztiak Bizkaiko uriburuan pilatu ez daitezana. Podemos taldeak, bere aldetik, aitaturako eraikinaren titulartasun pribadua azpimarratu dau, eta Kultura Sailak proiektua martxan jarteko aurreikusten dituan epeetan zehaztasun handiagoa eskatu dau. Foru Gobernua eusten daben taldeei jagokenez, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak bat etorri dira Kulturako Foru Diputatuaren gogoetakaz, eta eregiko dan Museoaren arrakastaren aldeko apustua egin dabe.

---

NOTA DE PRENSA  
19/02/18

## **Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban por unanimidad una Proposición No de Norma para propiciar depósitos y donaciones para la Biblioteca Foral**

La Comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana, por unanimidad de todos los grupos junteros, una Proposición No de Norma para promover el depósito y donación de obras a la Biblioteca Foral. La propuesta, presentada a iniciativa del portavoz del Grupo Mixto Arturo Aldecoa, insta a la Diputación Foral a estudiar y poner en marcha actuaciones para promover que ciudadanía, entidades, empresas y administraciones puedan donar a la Biblioteca libros, folletos, publicaciones periódicas y otros elementos impresos de interés.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

A la hora de justificar su propuesta, Aldecoa ha subrayado el escaso número de donaciones bibliográficas registrado en los dos últimos años, y ha puesto de manifiesto la conveniencia de publicitar la disposición de la Biblioteca Foral a recoger colecciones, que de otra manera “acabarían destruidas o malvendidas”. Todos los grupos han coincidido en calificar como interesante una Proposición No de Norma que puede contribuir a mejorar los fondos de la entidad con un coste mínimo, si bien el portavoz socialista, Josu Montalbán, ha señalado que deberá establecerse el oportuno filtro “para que nuestros archivos y biblioteca no se conviertan en meros almacenes contenedores”.

#### COMPARECENCIA DE LA DIPUTADA FORAL LOREA BILBAO

Además de la aprobación de esta Proposición No de Norma, la Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales celebrada esta mañana ha incluido la comparecencia de la Diputada Foral del área, Lorea Bilbao, que ha respondido a sendas solicitudes de Grupo Mixto y EH Bildu en torno a proyectos museísticos.

La primera se ha referido al criterio actual de la Diputación sobre la posible ampliación del Museo Guggenheim Bilbao y su compatibilidad con la también posible ampliación del de Bellas Artes. El juntero del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha señalado a este respecto que ambas instituciones museísticas pueden considerarse complementarias y tienen la posibilidad de desarrollarse de manera coordinada, “considerando Bilbao y sus museos como un todo”.

Lorea Bilbao ha explicado que por el momento no existen novedades significativas en cuanto a las dos posibles ampliaciones, y ha puesto de manifiesto que “disponemos de dos museos de referencia sobre los que es preciso hacer una reflexión profunda y compartida, para que sigan siendo un espacio de oportunidad para la Cultura y que a la vez puedan propiciar un desarrollo equilibrado del territorio”. El resto de los grupos junteros han compartido la necesidad de reflexión y la necesidad de informes técnicos y económicos fiables antes de emprender iniciativas de ampliación, y han solicitado a la Diputada Foral de Cultura que les mantenga informados de cualquier avance en este sentido.

La segunda comparecencia se ha referido al futuro Museo de la Industria y la Técnica, que fue ampliamente apoyado a través de una Proposición No de Norma aprobada por esta misma Comisión de Euskera y Cultura el pasado mes de noviembre, y sobre el que el grupo juntero de EH Bildu ha cuestionado a la Diputada Foral.

La Proposición No de Norma aprobada instaba a presentar y definir una estrategia antes de que finalice esta legislatura para la creación e implementación de un Museo de la Industria y la Técnica, que podría ubicarse en el edificio de Grandes Molinos Vascos ubicado en el muelle de Zorroza. EH Bildu ha solicitado información “sobre los pasos dados hasta el presente y los plazos establecidos e iniciativas a desarrollar de cara al futuro para que se materialice”.

Como en el caso de la posible ampliación del Guggenheim y el Bellas Artes, Lorea Bilbao no ha facilitado datos concretos, aunque ha insistido en que se trata de un proyecto “importante y necesario, sobre el que hemos entablado conversaciones con el Gobierno Vasco y con diversas empresas e instituciones que trabajan en el ámbito del patrimonio industrial, pero sobre el que aún no disponemos de una propuesta concreta, porque estamos aún en la etapa de definición estratégica, que esperamos tener concluida a finales de este año”.

Por parte del grupo solicitante de la comparecencia, María Jesús Padrones ha recalcado que el



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

proyecto museístico debería estar encarrilado antes de que concluya la presente legislatura, y ha puesto el acento en la necesidad de adoptar decisiones urgentes ante el deterioro del edificio donde podría ubicarse, un aspecto destacado igualmente por el portavoz del Grupo Mixto. El Grupo Popular ha disentido de esta ubicación y ha apostado por algún otro emplazamiento en la Margen Izquierda para evitar la concentración de museos en la capital vizcaína, mientras que Podemos ha incidido en la titularidad privada del edificio en cuestión y ha solicitado mayor concreción en los plazos que baraja el Departamento de Cultura para la puesta en marcha del proyecto. Por parte de los grupos que apoyan al ejecutivo foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han mostrado su coincidencia con las reflexiones de la Diputada Foral de Cultura y han apostado por el éxito del futuro Museo.